

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ukondoa, hur eta amets

Etxeak muino gorrietan eraiki, trenbideak belardietan zehar pasarazi, eta lantegiak apar zuriko ibai ondoetan jasotzen zituen herri hartara hurbildu zen udazkena. Inork ez zekien nola heldua zen; baina, han zegoen udagoiena: denen begietan, denen sudurzuloetan, denen aho-sabai eta hatz-mamietan. Pagadiak hartu zituen bat-batean larrazken horrek, uso-paseak eta masustondoak. Ortzi eta itsaso urdinak.

Udako oporrak amaituta, sanferminak, andramariak eta sanantolinak errendituta, han eta hemen suelto eta libre ibili eta gero, zortzi orduko lanetara makurtuta aurkitu ziren hango denak.

Neguari begiratu zioten. Herri hartan zen gizaki orok harilkatu zituen plan berriak ikasturte berri-rako, aro berrirako.

DESIOEN BATZARRA. Bilkura eraikitzaile-ra deitu zuen alkateak, herritarren eskakizunak zerrendatu eta irtenbideen zirriborroa erredaktatzeko. Itaun argia jarri zien mahai gainean: zer nahi du herritar bakoitzak sasoi berrirako?

Eskarien zerrenda idazteari ekiteko, lehen urrats moduan, taldeka bildu ziren hango denak: umeak adinekoekin, ezkongeeak ezkonduekin, taxi-gidariak nekazari-ekin, pobreak aberatsekin, eta gorriak urdinekin. Festa-itxura ponpoxoa hartu zuen batzarrak.

Metodologia aktibo horren bigarren urratsa izan zen elkarri esatea, denek entzuteko moduan ahots goraz adieraztea talde bakoitzak eztabaidatu zuenaren laburpena, herriko idazkariak akta jaso zezan.

Hor hasi zen benetako zalaparta. Talde batek *gaua* esaten bazuen, beste batek *eguna*. *Arraina* esanez gero Urliak, *okela* esan behar zuen Sandiak. *Txakolina* freskatzen jartzeko eskatzen bazuen



INIGO AZKONA

Berendiak, *sagardoa* uretan sartzeko Kamiñondoko mutil zaharrak.

ESKAKIZUNEN AKTA. Buruarekin hormaren kontra ari zirela ikusita, bigarren batzar baterako deia egin zuen alkateak: bazkalondoan etortzeko udaletxera berriro ere, baina gauzak hobeto pentsatuta.

Tripa-zorriak uxatzera joan ziren ba herritarrak, eta han azaldu ziren berriz ere, kafearen eta anis-tantaren ostean. Diosal ederreko hitzak esan zizkien herriko nagusiak bertaratutakoei; eta, aho-peka, idazkariari agindu zion: “Ganorazko eskakizunak baizik ez apuntatu kaier ofizialean”.

Haur eta gazteek eskatu zuten errazagoa izatea matematikako azterketa, eta alde zurretik ematea andereñok itaunak. Ezkongeeak eskatu zuten zirri-etxe bat eraikitzea Elizosteko Plazan, bikotea probatzeko. Ezkonduak bat egin zuten eskari horrekin.

Udaletxeko balkoian ikurrina baizik ez egotea, piper-potoaren edo hiru koloretakoaren itzalik gabe, halaxe eskatu zuten gorriek. Urdinek, erregearen erretratua jartzeko batzar-aretoan. Horien artean ere, erabateko adostasuna.

Taxi-gidariak, zergak kentzea. Nekazariak, esne-kuotak altxatzea. Aberatsek, gidari partikularak euren merzedesak konduzitzeko. Pobreek, tren-geltokia herritik hain urrun ez jartzeko...

Eskakizunak entzun ostean, alkateak berak hartu zuen hitza. Galdetu zien herriko zaharrei ea ez ote zuten haiek eskaerarik, normalean ez bezala isilik egon baitziren batzar osoan.

Elkarri begiratu zieten atsoek agureei, eta agureek atsoei; edo alderantziz.

Haietako bat zutik jarri eta: “Bai, badugu eskakizun bat, bakarra: ukondoari muin egiteko modu erraz bat aurkitzea denon artean”. ■

Bai, badugu eskakizun bat, bakarra: ukondoari muin egiteko modu erraz bat aurkitzea denon artean



irudia:
Antton Olariaga